

**Zein dira bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?
Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Gure hornitzaileen artean nagusienak ile naturala hornitzen lagunduko diguten Euskal Herriko ileapaindegia izango dira, edo ileren dohaintza egin nahi duen edozein pertsona Baita hari ekologikoak sortzen eta saltzen dituzten euskal enpresak ere; dena den, horretarako euskal enpresarik egon ezean estatukoetara joko genuke. Esaterako:

Tolosako Valeria ileapaindegia (ilearen dohaintza)
Hilosa (hari ekologikoa)

Bazkideak berriz, inguruko inbertsore eta minbiziaren aldeko gauzetan inbertitu nahi duen oro. Horiez gain, influencerrak eta komunikazio-eragileak ere funtsezkoak izango dira gure produktua ezaguztarazteko, proiektuari ikusgarritasuna emateko eta gizartearengana iristeko. Esaterako:

- Influencerrak: Nury Calvo, Izarbe Gil, Emi eta Helena Huelva....
- Inbertsioa egingo dutenak: AECC y CRIS Contra el Cáncer

Bazkide eta hornitzaile hauek garrantzitsuak dira, alde batetik, proiektua aurrera eramateko ekonomikoki laguntzen gaituztelako baita beharrezkoak ditugun materialak lortzeko aukera ematen digutelako. Eta bestetik, gure enpresa babesten dutelako, bisibilizatu egiten dutelako eta jendearengana iristen laguntzen gaituztelako.